

GONBIDAPENA

EUSKARAREN TRANSMISIOARI BURUZKO V. MINTEGIA

Agur t' erdi:

Euskararen erabileraz arduratzen garenok ezin dugu erabilerarako ezinbestekoa den transmisioaren gakoa alde batera utzi, transmisioak gaitasuna ez ezik hizkuntzarekiko baloreak eta ardura ere dakartzalako.

Dakiguna gure ondorengoei ematen diegunean hizkuntza horrekiko begirunea erakusten diegu, balekoa dela esaten ari gara eta eurona ere badela adierazten diegu.

Transmisioa hain garrantzitsua izanik, ezinbestekoa da alor hau aintzat hartzea, modu estrategikoan lantzea eta plangintzak definitzea. Asko gara transmisioaren gainean lanean dihardugun euskara elkarte, erakunde, aisialdi talde, irakasle edota guraso elkarteak. Beste alorretan gertatzen den moduan, erakunde bakoitzak bere kabuz somatu dituen premiak asetu nahian hasi gara.

Gaiari sendotasunez heldu eta, mintegi baten bitartez, honen inguruan dauden esperientzia eta praktika onak elkarbanatu eta ezagutarazteaz gainera, transmisioari buruz eztabaida eta lan ildoak definitzeko asmoarekin lehenengo mintegia antolatu genuen 2011ko udaberrian. Gaiarekiko interesa eta jasotako ondorioak ikusita, aurten ere lan ildo horri jarraipena ematea erabaki dugu.

Gutun honen bitartez mintegi horretan parte har dezazun gonbitea egitera gatozkizu, mintegiaren gaia zure jakinmineko gerta litekeelakoan. Mintegia **maiatzaren 25ean** egingo dugu, Eibarko Portalea kultur etxean, goizeko 09.00etan hasita 14.45ak arte. Gero, denok elkarrekin lasai bazkaltzeko aukera izango dugu. **Izen ematea maiatzaren 4tik 21era egin ahal izango da normalizazioa@etakitto.eus helbidera idatzita edo 943 20 09 18 telefonora deituta.** Bertan izen-abizenak, enpresa edo erakundea, telefonoa eta e-posta adierazi beharko dira. Mintegiaren prezioa 25 eurokoa izango da (bazkaria barne); bazkaltzen gelditzeko asmoa ez dutenezat, 15 euro. Ordainketa Euskadiko Kutxako ES21 3035 0078 86 0780022083 zenbakian egin beharko da eta ...eta kitto!ra bidali.

Beste barik, eskerrik asko zure arretagatik.

Ainara Labado Alonso
...eta kitto! Euskara Elkarteko normalizazio teknikaria
(943200918 - normalizazioa@etakitto.eus)

